

<b>Izenburua</b>	<i>Einbide</i> ekimeneko karta-jokoa
<b>Formatua</b>	Irakasleen/ikastetxeen material/jarduera esanguratsuak
<b>Egilea</b>	Olatz Zabalondo (Bermeoko Eleizalde Ikastola)
<b>Kontaktua</b>	Olatz Zabalondo: ozabalondo@eleizaldeikastola.eus
<b>Nori zuzendua</b>	DBH 3ko ikasleei
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiztegi soziolinguistikoa menperatzea.</li> <li>• Euren hizkuntza-jarreraren inguruko kontzientzia piztea</li> <li>• Kartetako egoeretan aurki daitezkeen gatazkei (asmatuak badira ere, errealitatean gerta daitezkeen istoriak dira) irtenbideak proposatzea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<p><b>1. saioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gela talde txikitik banatu (3-4 taldekide) eta rolak banatu: idazkaria, kronometratzailea, ordezkaria...</li> <li>• Talde bakoitzari karta guztiak banatu. Bi karta mota daude: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Informazio kartak (kontzeptu soziolinguistikoak) eta istorio kartak (errealitatean oinarritutako asmatutako testigantzak).</li> </ul> </li> <li>• Taldeko kide guztiek informazio karta guztiak irakurri dituzte eta bakoitzak esanguratsua egin zaiona aukeratu.</li> <li>• Taldekide bakoitzak gainerako taldekideei adierazi behar die zein aukeratu duen eta zergatik.</li> <li>• Taldeko guztien artean aukeratu diren horietatik bakarra aukeratu beharko dute. Horrek, euren atrean eztabaidatzeko aukera emango die.</li> </ul> <p><b>2. saioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeak mantendu egingo dira.</li> <li>• Prozesu berdina errepikatuko da istorio txartelekin. Istorio txartelekin taldekideen artean sortzen den eztabaida handiagoa izan ohi da.</li> </ul>

	<p><b>3. saioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde txikietan adostutakoa eta adostasunera iritsi arteko prozesua talde handian adierazten da.</li> <li>• Istorio kartetan agertzen diren egoera edo gatazketan eragiteko, ikasle gisa egin dezaketenaren inguruan hausnartzen dute.</li> </ul>
<b>Denboralizazioa</b>	3 saio
<b>Eranskinak</b>	<p>Kartak eskuragarri:</p> <p><a href="https://drive.google.com/drive/u/2/folders/1jO7EYyHv3ZZiEq4khGRTxRIEE9-c5ltn">https://drive.google.com/drive/u/2/folders/1jO7EYyHv3ZZiEq4khGRTxRIEE9-c5ltn</a></p>
<b>Oharrak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dinamika hau DBH 3ko EKlko 2. unitatea (<i>Euskararen lekukoak</i>) amaitu ondoren egiteko aproposa da, unitate horretan burutzen duten ikerketa soziolinguistikoa borobiltzeko.</li> <li>• Kartak euskaraz eta gaztelaniaz daude gurasoekin jolasteko sortu direlako.</li> </ul>